

CHARLES DARWIN, AGUR ETA OHORE!

Testua eta argazkiak: **Txomin Peillen**

BIZIAREN isilpeko (bizidunen estalpeko) guztiak erantzi nahiz, *Beagle* itsasuntzian abiatu zinen Ingalaterratik 1831.ean lurzabalari bira emateko. Gainerakoek beren liburutegiko beropcean biziaren sekretuak ikertzen zituztelarik, zeuk aitona bere *Zoonomian* eta Malthus jakitunak bere *Essay on the principles of population* liburuan bizidunetz esanak ikusi nahi zenituen. Bost urte

eraman ere lurrari ingurua emanaz eta bost aste bakarrik Galapago irletan. Han hasi zen, ordea, ernatzen zure teoria zabala. Hemen bi ideia nagusi baizik ez ditut aipatuko, argazkiz lagundurik.

Lehenik transformismo-teoriak zioenez, aldakortasunaren asmoei esker (Bibliazaleek ere onartzen zituzten) arraza eta bizidun-mota berriak ager zitezkeen, inguruneak sorturik. Charles Darwinek hori

ukatu egin zuen, ezen baldintza berdinak izan arren, arrazak leku mugatu batean baizik ez bait ziren agertzen. Darwinek kanpoko eraginez ez zirela agertzen zioen; barrukoaz baizik. Horretarako Galapago irlak argigarri izan zitzaizkion, han *bizidunen aldakortasuna* oso nabarmena zelako.

Darwinentzat, beraz, ingurumenak ezin du berritasun onik sortu. Izadiak hautespen bat, aukera bat,



Opuntia handia
(San Cristobal)



Opuntia ertaina
(Isla Isabela)

***Opuntia txikia edo
epotxa (Isla Rabida)***

egiten du, barrutik jasotako berri-
tasunen artean hautatuz. Hona
gure adibide bat: irla bakoitzean
Opuntia landare-mota desberdina
ikusi dugu, bakoitza hango giro
desberdinerara (baita hango sumen-
di-lur motara ere) egokitua. Hartu
ditudan argazkietan hiru arraza
agertzen zaizkigu *Opuntia handia*
(hautsean), *ertaina* (zaborretan) eta
epotxa (laba gogorrean). Noski, lan-
dare guztiak giro bati, ekosistema
bati (ur, aize, lur, berotasun eta
inguru berezi bati) egokitzen zaiz-
kio edo bestela galdu egiten dira.
Beraz gure ingeles jakintsua ekolo-
gia bakun eta arrunt baten aita
dela esan dezakegu.

Bigarrenik, Malthusen gogame-
na —izadiak ahulak galeraetzen di-
tuela— gure jakintsuari bidaia egi-
teko sustatzaile gertatu zitzaion.
Bost urtez itsaso eta lehorreko ibi-
laldi luze hartan probaz baieztatu

Darwin sumendia



zuen pertsonentzat adina anima-
lientzat balio duela legeak, *Izadia-
ren hautespen-teoria* zorrotzagotuz.
Geuk ere, Galapagoetan —ehizta-
ririk ez biztanlerik, ez dagoen le-
kuetan— ikusi dugu errukirik,
urrikalmenik gabe, traketsa, ar-
gala, narrioduna, akastuna bazter-
tua dela (argazkian dakusazue
itsas otsokumea hiltzen ari). Mal-
thusek sortu zuen esaldia geroztik
biologoek artean eztabaidatu arren,

hizkuntzan, hizkuntzetan sartu da;
alegia, lurzabal honetan *Struggle
for life* edo Bizirako borroka dela
bizidun guztien lege, indartsuena,
trebeena edo antzetsua aukeratzen
duena. Darwinek dioenez, aukera
hori emeek animalia arra hauta-
tzen dutenean egiten da alde ba-
tetik, gero, jaio ondoren izadiak ere
bere aukera dagielarik. Aurreko ar-
tikuluan argazki batean “ezkongabeko”
itsas otsoak agertzen ziren,





ezen zahartxeago eta indartsuago ziren eta diren otso arrek, “hagin eta ausiki” bidez beren monopolioa edukitzen bait dute.

Gizakiak tartekatzen garenean, ahulak ere gorde eta salba genitzake —hala egiten dugu geure buruekin, protesidun arrazak sortuz, ni horien artean nagoelarik—. Nekazaritzan eta abelazkuntzan izadiak aukeratzen ez dituen ezaugarri-

Darwin aintzira



ak hobesten ditugu (haragia, esnea, fruta hobetuak). Izadiak ordea bere hautespenarekin eredu ertain bat atxikitzen du.

Darwinek ez zekizkien bere garaian genetikaren berriak; ezta gerotik mikromolekulen kimikak erakutsi dizkigunak ere, baina haren urratsa ausarta eta handia izan zen eta omenaldiz argazkietan agertzen diren Darwin sumendia eta Darwin aintzira badaude Isabela irlan. Jakituna ohoratzeko ikuspegi bitxi eta ederrenak aukeratu

Itsas otsokume argala hiltzen ari.

diozkiote. Garai batean kristauek bere teoria oker ala zuzen ulerturik oztupo egin zioten, Estatu Batuetan debekaraziz, baina Bibliak neolitos garaiko jakintza bakunaz ekarri ziguna aldatzeko eta hobetzeko garaia zen. Azken urteetako aurkikuntzek mikrobiologiaren ekarpenaz bizidun guztien artean lokarria badagoela ziurtatu digute, nahiz eta gizakiek biziaren zuhaitzean adarrik arraroena —nahiz txarrean nahiz onean— sortu eta jarraiki dugun.

Galapagoetako eredua, noski, ederra da. Zoritxarrez txikiegia ere bai, ezen urte guztiz Amazonia, Kongo edo European bizidun-mota larregi behin-betirako desagertzen bait da, gizakiak garapenaren izeanean eta gehienetan alferretan egiten duelarik. Giza adimena bi aho-ko ezpata delako, sarri alde txarretetik erabiltzen da, adimena sena baino kaltegarriago gerta daitekeelarik. Galapago irlei lurzabalaren oasi jarraitzea opa diegu, giza-harrokeriaz makinek bizidunen lekua hartzen duten garaian. 